

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Udalbatzako kideen ordainsariak, kalte ordainak eta gainerako sariak zehaztea

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32. artikulua xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen dira 2019ko uztailaren 12ko osoko bilkuran zehaztutako udalbatzako kideen ordainsariak eta kalte ordainak:

1. Kide diren kide anitzeko organoetara eta tokiko gobernu batzarrera benetan joateagatik jaso beharreko ordainsaria: 125,00 euro.

2. Alkateorde jarduteagatik jaso beharreko kalte ordaina: 100 euro hilean.

Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan zehaztutakoa da horren guztiaren muga.

3. Alkate lanetan dedikazio eskusiboan eta Gizarte Segurantzaren araubidean alta emanda jardutea. Egun indarrean dagoen zenbatekoa, Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan zehaztu eta 2019ko otsailaren 16ko ALHAOn (16. Zk.) argitaratutakoa.

4. Zinegotzi lanetan jardutea dedikazio partzialan, gehienez ere, lanaldiaren ehuneko 50: indarrean dagoen araudiaren arabeko ordainsaria.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Iruña Oka, 2019ko uztailaren 16a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA